Deusto
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

# Premio Deusto Valores en el Deporte

# Kirol Balioen Deusto Saria




BOUD - 28 de febrero de 2020 n.º 75 zk. DUAO - 2020ko otsailaren 28a

***Orden del Rector 2/2020, de 26 de febrero, por la que se aprueban las bases reguladoras del Premio Deusto a los Valores en el Deporte.***

Por Orden del Rector 17/2018, de 17 de octubre, a propuesta del Vicerrector del campus de Donostia / San Sebastián, visto el informe presentado al efecto y oído el Consejo de Dirección, la Universidad de Deusto instituyó el Premio Deusto Valores en el Deporte.

Junto a la institución del Premio, la Orden dispuso:

1. Facultar al Rector para, en virtud de las competencias que le son atribuidas en los Estatutos Generales de la Universidad, y dadas las circunstancias concurrentes, con carácter excepcional, y oído el Consejo de Dirección, otorgar el Premio en su primera edición. El Premio fue concedido y entregado en acto público a la atleta Kathrine Switzer, símbolo y referente universal de la lucha en favor de la igualdad en el deporte.

2. Instar a la elaboración y aprobación de las bases reguladoras de las futuras ediciones del Premio.

En su virtud, vista la propuesta presentada al efecto, y oído el Consejo de Dirección, DISPONGO.

**Artículo 1.** Objeto del Premio

Es objeto de la presente Orden regular la concesión del Premio Deusto Valores en el Deporte, cuya finalidad es premiar y reconocer públicamente a aquellas personas, entidades o proyectos que se hayan significado especialmente en la defensa y promoción de valores humanos universales a través de la práctica deportiva.

**Artículo 2.** Características del Premio

El Premio, que consistirá en una distinción honorífica, tendrá dos modalidades:

***Erektorearen 2/2020 Agindua, otsailaren 26koa, Kirol Balioen Deusto Sariaren oinarriak onartzen dituena.***

Errektorearen urriaren 17ko 17/2018 Aginduaren bidez, Deustuko Unibertsitateak Kirol Balioen Deusto Saria sortu zuen, Donostiako campuseko errektoreordeak proposatuta, horretarako aurkeztutako txostena ikusi eta Zuzendaritza Kontseiluari entzun ondoren.

Saria sortzearekin batera, Aginduak hau xedatu zuen:

1. Lehenengo edizioan, eta salbuespen gisa, Errektorearen esku uztea Saria emateko ahalmena, Zuzendaritza Kontseiluari entzunda eta Unibertsitateko Estatutu Orokorrek ematen dizkioten eskumenak baliatuta. Hala, Saria Kathrine Switzer atletari eman zitzaion, kirolean berdintasunaren aldeko borrokan ikur eta erreferente unibertsala delako, eta jendaurreko ekitaldi batean jaso zuen.

2. Sariaren hurrengo edizioak arautzeko oinarriak prestatu eta onartzeko eskatzea.

Oinarri horien proposamena aztertuta, eta Zuzendaritza Kontseiluari entzunda, honako hau XEDATU DUT:

**1. artikulua.** Sariaren xedea

Agindu honen helburua da Kirol Balioen Deusto Saria arautzea. Sariaren xedea da kirolaren jardunean giza balio unibertsalen defentsan nabarmendu diren pertsonak, erakundeak edo proiektuak saritzea eta omentzea.

**2. artikulua.** Sariaren ezaugarriak

Ohorezko saria izango da eta bi modalitate izango ditu:

— Defensa y promoción de valores en el deporte a escala global.
— Defensa y promoción de valores en el deporte vasco.

Será convocado anualmente por el Rector / la Rectora, estableciéndose en cada convocatoria el plazo de presentación de candidaturas.

**Artículo 3.** Presentación de candidaturas

Podrán optar al Premio aquellas personas, entidades o proyectos que se hayan significado especialmente en la defensa y promoción de valores humanos universales a través de la práctica deportiva, tanto a escala global como en el deporte vasco.

Las candidaturas podrán ser presentadas tanto por las personas o entidades que aspiren al Premio, como por cualesquiera otra persona física, jurídica, pública o privada, así como a título individual por cualquier persona integrante del Jurado.

La presentación de las candidaturas se acompañará de la siguiente documentación:

— Documentación que acredite la contribución de la persona, entidad o proyecto propuesto al objeto del Premio.
— En su caso, avales o adhesiones que, a favor de la persona, entidad o proyecto propuesto, presenten quienes formalicen las candidaturas.

**Artículo 4.** Jurado

El Jurado estará constituido por las siguientes personas:

— El Rector / la Rectora de la Universidad de Deusto, quien ejercerá la presidencia del Jurado.
— El Vicerrector / la Vicerrecetora del campus de Donostia / San Sebastián de la Universidad de Deusto.
— El Decano / la Decana de la Facultad a la que esté adscrita la titulación de Ciencias de la Actividad Física y el Deporte, o persona en quien delegue.
— Una voz experta del área de conocimiento de Ética y Valores de la Universidad de Deusto, designado por el Rector / la Rectora, oído el Consejo de Dirección de la Universidad.
— El Alcalde / la Alcaldesa de Donostia / San Sebastián, o persona en quien delegue.
— Dos exdeportistas de élite de Gipuzkoa de reconocido prestigio internacional, designados por el Rector / la Rectora, oído el Consejo de Dirección de la Universidad.
— La(s) persona(s) premiada(s), en la edición del Premio del año anterior.
— El Director / la Directora de DeustoForum Gipuzkoa, quien actuará de secretario/a del Jurado.

Sus acuerdos serán adoptados por mayoría simple de votos emitidos, teniendo, en su caso, el voto de calidad la persona que presida el Jurado.

Las correspondientes convocatorias anuales podrán, en su caso, disponer la incorporación al Jurado de otras personas de reconocido prestigio en el ámbito objeto del Premio.

**Artículo 5.** Fallo del Jurado

Su fallo será acompañado de un dictamen razonado justificativo de la idoneidad y especial relevancia de la persona, entidad o proyectos propuestos para el Premio en cada una de sus dos modalidades en relación con el objeto del Premio: la defensa y promoción de valores humanos universales a través de la práctica deportiva.

— Kirolean balioen defentsa eta sustapena, maila globalean.
— Euskal kirolean balioen defentsa eta sustapena.

Errektoreak urtero egingo du Sariaren deialdia, eta deialdi bakoitzean zehaztuko da hautagaitzak aurkezteko epea.

**3. artikulua.** Hautagaitzak aurkeztea

Kirolaren jardunean, dela maila globalean dela euskal kirolean, giza balio unibertsalen defentsan nabarmendu diren pertsonak, erakundeak edo proiektuak izan daitezke sarirako hautagai.

Hautagaitzak Saria jaso nahi duten pertsonek edo erakundeek aurkez ditzakete, baita beste edozein pertsona fisiko, juridiko, publiko edo pribatuk ere. Halaber, epaimahaiko kideek ere, nork bere kasa, aurkez ditzakete hautagaitzak.

Hautagaitzak aurkezterakoan, dokumentazio hau erantsi beharko da:

— Sarirako hautagai proposatzen den pertsonaren, erakundearen edo proiektuaren ekarpena agerian jartzen duen dokumentazioa.
— Nahi izanez gero, hautagaitzak aurkezten dituztenek proposatzen duten pertsona, entitate edo proiektu horren alde jaso dituzten abalak edo atxikimenduak.

**4. artikulua.** Epaimahaia

Epaimahaikideak honakoak izango dira:

— Deustuko Unibertsitateko Errektorea, epaimahaiburu arituko dena.
— Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campuseko errektoreordea.
— Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako titulazioa hartzen duen Fakultateko dekanoa edo berak eskuordetzen duen pertsona.
— Etikaren eta Balioen jakintza arloko espezialista bat, Deustuko Unibertsitateko kidea, Errektoreak izendatua, Unibertsitateko Zuzendaritza Kontseiluari entzun ondoren.
— Donostiako alkatea edo berak eskuordetzen duen pertsona.
— Nazioartean izen handia duten eliteko bi kirolari ohi gipuzkoar, Errektoreak izendatuak, Unibertsitateko Zuzendaritza Kontseiluari entzun ondoren.
— Sariaren aurreko edizioko sariduna edo saridunak.
— DeustoForum Gipuzkoako zuzendaria, epaimahaiko idazkari izango dena.

Epaimahaiak emandako botoen gehiengo sinplez hartuko ditu erabakiak. Epaimahaiburuak kalitateko botoa izango du.

Urte bakoitzeko deialdian xedatuko da, egoki ikusiz gero, Sariaren esparruarekin lotura duten izen handiko beste pertsona batzuk ere epaimahaikide izendatzea.

**5. artikulua.** Epaimahaiaren erabakia

Epaimahaiak, erabakia jakinaraztearekin batera, bi modalitateetako bakoitzean Saria jasotzeko proposatzen duen pertsonaren, erakundearen edo proiektuaren egokitasuna eta nabarmentasuna azalduko ditu, Sariaren helburuak aintzat hartuta: kirol jardunean giza balio unibertsalak defendatu eta sustatzea.

**Artículo 6.** Concesión del Premio

De conformidad con el fallo del Jurado, el Rector / la Rectora dictará la correspondiente resolución de concesión del Premio.

**Artículo 7.** Entrega del Premio y reconocimiento público

La entrega del Premio se llevará a cabo en un acto público organizado al efecto que tendrá lugar en el campus de Donostia / San Sebastián de la Universidad de Deusto.

DISPOSICIÓN FINAL

**Única.** La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOUD.

**6. artikula.** Saria ematea

Epaimahaiaren erabakia kontuan hartuta, Errektoreak Saria emateko erabakia argitaratuko du.

**7. artikulua.** Saria emateko ekitaldia eta jendaurreko aitorpena

Saria jendaurreko ekitaldi batean emango zaio sarituari, Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusean.

AZKEN XEDAPENA

**Bakarra.** Agindu hau DUAOn argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.